

## Aprilak 17: GAZTE INFORMAZIOAREN EUROPAKO EGUNA

**“Feel free to ask – Bota zure galdera”** da igandean, apirilaren 17an, ospatuko den Gazteentzako Informazioaren Europako Egunaren leloa. Gipuzkoak, Gazte Informazioaren Sarearen bidez, Gazteentzako Informazioko eta Aholkularitzako Europako Agentziak (ERYICA) sortutako ekimen honekin bat egingo du. Europa osoan Gazteentzako Informazio Zerbitzua ezagutzera ematea da helburua. Gainera, ERYICAK 25 urte beteko ditu aurten.

Gipuzkoako Gazteentzako Informazio Sareak biztanle guztiei, bereziki Gipuzkoako gazteei, eskura dituzten doako zerbitzu eta produktu guztiak ezagutarazteko aukera hau aprobetxatu nahi du. [www.gipuzkoangazte.info](http://www.gipuzkoangazte.info) blogean, lana, hezkuntza, etxebizitza, astialdia eta beste gai interesgarri batzuei buruzko informazioa aurkitzeaz gain, herrietako nahiz Gipuzkoako hainbat gazteentzako informazio buletinetan, eta baita mugikorrean SMS alertak jasotzeko zerbitzuan ere, izena eman daiteke doan. Buletina dagoeneko 4000 harpidedunek jasotzen dute, lehengo urtean baino 700 gehiagok. Baliabide horiei esker, kontzertu, lanpostu eta bestelako deialdi interesgarriak astero ezagutuko dituzte.

**SMS zerbitzuan** harpidetzek ere gora egin dute 2010. urtean; gainera, gazte informazioko bulego gehiago hasi dira zerbitzu hau eskaintzen.


Gainera, 2010. urtean informazioa jarraitzeko bide berriak ireki ditugu, besteak beste, Gipuzkoangazteko **FACEBOOK ORRIA**.

**Gipuzkoangazte** bloga Gipuzkoako gazteen artean erreferente bihurtu da, horren erakusgarri, 2010. urtean izan dituen bisitak: 280.000 inguru, 2009an baino 80.000 gehiago. Horretarako, Gipuzkoako Gazte Informazioko sarea osatzen dugun bulegoak eta Lurralde Zentroa aritu gara lankidetzan.

Honela, gazte informazioa jaso nahi dutenek gipuzkoangazte.info blogaren bidez, posta elektronikoz, mugikorrez, eta, orain, baita GIPUZKOANGAZTE sare sozialetan kontsultatuz ere lor dezakete.

Halaber, gipuzkoarrak **bidaiatekako giden DOAKO MAILEGU ZERBITZUA eskuragarri dute**. Gainera, **BIDAIA TEKA** ([www.gipuzkoangazte.info/bidaiateka](http://www.gipuzkoangazte.info/bidaiateka)) zerbitzuaren bitartez, ibilbideei, ostatuei, deskontuei eta bidaiatzeko beste gai batzuei buruzko informazioa eta aholkuak jaso ditzakete.

Gogoan izan, gainera, Gazteentzako Informazio Bulegoetan **ikasleen, irakasleen eta atarpekieen nazioarteko txartelak** egin daitezkeela.



Igandean ospatzen dugun Europako Eguna beraz, aukera paregabea da gipuzkoar gazteentzat, bertan eskura dituzten baliabideak eta doako informazio osoa, eguneratua, zehatza eta praktikoa zuzenean ezagutzeko.

**www.gipuzkoangazte.info/bulegoak**

**Gipuzkoako Gazte Informazioko Sarea:**

<b>Gipuzkoako Gazte Informazio eta Dokumentazioko Zentroa</b> Centro Territorial de Información y Documentación Juvenil de Gipuzkoa	Anoeta 28, (Txuri Urdin)	<b>900110111</b> (doako telefonoa Teléfono gratuito)	<a href="mailto:ctij1@gipuzkoa.net">ctij1@gipuzkoa.net</a>
<b>Andoain</b>	Anbrosia Olabide Egoitza, Pio Baroja 1, behea	943 59 39 11	<a href="mailto:gibandoain@euskalnet.net">gibandoain@euskalnet.net</a>
<b>Arrasate</b>	Garibai Etxea. Biteri Etorbidea, 3	943 252065	<a href="mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net">gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net</a>
<b>Astigarraga</b>	Kultur Etxea Kale Nagusia, 48	943 331067	<a href="mailto:gazteinform@astigarraga.net">gazteinform@astigarraga.net</a>
<b>Azkoitia</b>	Elkargunea Aita Madinabeitia plaza z/g	943 026027	<a href="mailto:gib@euskalnet.net">gib@euskalnet.net</a>
<b>Azpeitia</b>	Plaza txikia z/g	943 157160	<a href="mailto:gib@azpeitia.net">gib@azpeitia.net</a>
<b>Donostia</b>	Mari kalea, 1- Goikoa Jauregia	943 481435	<a href="mailto:gazte_info@donostia.org">gazte_info@donostia.org</a>
<b>Eibar</b>	Bista Eder, 10	943708435	<a href="mailto:infojuven.ei@eibar.net">infojuven.ei@eibar.net</a>
<b>Elgoibar</b>	Foruen Plaza z/g, 20870 Elgoibar	943257986	<a href="mailto:gazteinformazioa@elgoibar.net">gazteinformazioa@elgoibar.net</a>
<b>Errenteria</b>	Merkatuzar. Pablo Iglesias 3	943 449640	<a href="mailto:gazteria@errenteria.net">gazteria@errenteria.net</a>
<b>Hernani</b>	Elkano kalea z/g	943552185	<a href="mailto:manolo-a@hernani.net">manolo-a@hernani.net</a>
<b>Hondarribia</b>	Jabier Ugarte, 6. 20280	943 644752	<a href="mailto:gip@hondarribia.org">gip@hondarribia.org</a>
<b>Ibaeta (EHU-UPV)</b>	Edificio Ignacio M <sup>o</sup> Barriola Eraikina Elhuyar Plaza, 1	943 018135/ 943 018138	<a href="mailto:svrbegaz@sv.ehu.es">svrbegaz@sv.ehu.es</a>
<b>Irun</b>	Foruen Karrika 2, behea	943 50 54 40 / 943 50 54 44	<a href="mailto:infojuvenil@irun.org">infojuvenil@irun.org</a>
<b>Lasarte-Oria</b>	Manuel Lekuona Kultur Etxea Geltoki kalea 18	943 376 181	<a href="mailto:gazteinfo@lasarte-oria.org">gazteinfo@lasarte-oria.org</a>
<b>Legazpi</b>	Kultur Etxea. Latxartegi, 3	943 73 72 03	<a href="mailto:gazteria.le@legazpi.net">gazteria.le@legazpi.net</a>
<b>Oiartzun</b>	Mendiburu kalea 5, behea	943 491105	<a href="mailto:gazteinfo@oiartzun.org">gazteinfo@oiartzun.org</a>
<b>Oñati</b>	Foruen Enparantza 4	943718257	<a href="mailto:gazteinformazioa@oinati.net">gazteinformazioa@oinati.net</a>
<b>Ordizia</b>	Barrena Jauregia	943 80 56 34	<a href="mailto:gazteria@ordizia.org">gazteria@ordizia.org</a>
<b>Tolosa</b>	A.M. Labaien Kultur Etxea Trianguloa, 1	943 670 383	<a href="mailto:gazteria@tolosakoudala.net">gazteria@tolosakoudala.net</a>
<b>Urnieta</b>	Idiazabal 13	943 333973	<a href="mailto:gazteinformazioa@urnieta.org">gazteinformazioa@urnieta.org</a>
<b>Villabona</b>	Katea Etxea. Nagusia 79	943 69 4787	<a href="mailto:gazteria@villabona.net">gazteria@villabona.net</a>
<b>Zarautz</b>	Zigordia kalea,34	943 005 122	<a href="mailto:gazteinformazioa@zarautz.org">gazteinformazioa@zarautz.org</a>